

**ASTEAZKENA**

2021/06/09

9. urtea, 1.432. zenbakia

107.6 fm

**www.ataria.eus**

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83 €

## Irakurketa feminista taldeek hitzordua dute Altzon

Tolosaldeko Irakurketa Feminista Taldeen I. Topaketa hartuko du Altzok larunbatean; egun osorako egitaraua prestatu dute, eta taldean sortu diren gogoetak elkarbanatzea dute helburu // 4

## Askotariko kultur ekitaldiak antolatu dituzte Berrobin, ekainerako

Maiatzean egin ohi duten kulturaldia ekainean izango da aurten; erakusketa, antzerkia, ipuin kontaketa, dantza edota musika izango dira, eta baita kirolarekin lotutakoak ere // 5

## 4,9 milioi euro gehiago onartu dituzte, ezohiko egoerari aurre egiteko

Tolosako Udalak azken bilkuran onartu du aurrekontu gehigarria; turismorako eta ostalaritzarako laguntzak ere onartu dituzte // 2

## 'Pyrene 430' ikuskizuna izango da igandean, Anoetan

Amaiur Luluaga anoetar dantzaria, beste dantzari bat eta bi musikaririk Euskal Herriko eta Herrialde Katalanetako folklorea uztartuko dituzte // 3



Perkusix perkusio taldeko kideak, Karlos Alcala (ezkerrean) zuzendariarekin. JOSU ARTUTXA

## Perkusix, herritarrei perkusioa gerturatzeko sortutako proiektua

Tolosako eta Beasaingo musika eskoletako 13 eta 17 urte bitarteko sei gaztek osatzen dute Perkusix perkusio taldea; Beasainen etzi, eta Tolosan astelehenean, eskainiko dituzte kontzertuak // 3

Bertako sagarmarekin egindako sagardoa

**EGZKITZA SAGARDOTEGIA**

ZATOZ GURE SAGARDO NATURALA DASTATZERA

Informazio gehiagorako eta erreserbak egiteko:  
TEL: 943672613

USABAL AUZOA, 25 TOLOSA

# Tolosako Udala zigortu dute, hiru postu irregularki esleitzeagatik

Udaltzain postu horiek «lehenbailehen arautzeko» eskatu dio epaileak; aurrez, «egoera erregularizatzeko urratsak emanak zituztela» adierazi du udal gobernuak

## Erredakzioa

Donostiako epaitegi batek Tolosako Udala zigortu du, hiru udaltzain postu (ofiziala, ofizialordea eta Herri Segurtasuneko eta Udaltzaingoko Saileko trafikoko agente koordinatzailea) legez kanpo esleitzeagatik, eta horiek «lehenbailehen eta tresna egokien bidez» arautzeko exijitu dio.

Epaia, Tolosako Udalaren aurka aurkeztutako demanda jasotzen du, hiru agenteak euren postuetan mantentzeko Egitate bidea erabiltzeagatik; alderdi mandatuaren ustez, azken urteotan irregularki ari ziren betetzen postuak. *Egitate bidea* termino juridikoak honakoa dio: «Administrazioaren jarduna eskumenetik kanpo eta legez ezarritako prozeduraren erregelak alde batera utzita egin da»; beraz, plazen esleipena legezko bideak jarraitu gabe egin zen.

Ofizial eta ofizialorde postuak duela 14 urte esleitu ziren zerbitzu-eginkizunen bidez; koordinatzaile plaza, duela 9 urte, behin-behineko lanpostu huts gisa. Legearen arabera, komisio bidez betetzen den lanpostu publiko bat, aldi baterako eta salbuespen gisa sortzen da, gehienez ere, urtebeterako. Auzi-jartzailak esan duenez, «deialdi

publikorik egin gabe eta merezimendu- eta gaitasun-berdintasunaren printzipioak errespetatu gabe» egin zen bere izendapena. Hori dela eta, «izendapenak baliogabetzeko eta lanpostu horiek betetzeko oposizio-lehiaketaren hautaketa-prozesua berehala deitzeko» eskatu zuen.

Udal gobernuak onartu egin du plazak irregularki bete zirela, baina «egia ez izatea» argudiatu du. Ildo horretan, errekurso bat aurkeztu zuen udalak, lanpostuak betetzeko borondatea adierazteko, baina «ez zuten inpugnatu». Hori dela eta, udalaren ustez, «postuetan ez dago egitatezko biderik», eta «nola bete erabakitze ahalmena» du. «Epaia argitaratu aurretik egoera erregularizatzeko urratsak emanak genituen. Ofizialorde postua legez betetzeko deialdia argitaratzear da, eta agente koordinatzailearena berrantolaketa prozesu batean murgilduta dago. Ofizialaren lanpostuaren deialdia, udan argitaratzea da nahia».

Epaileak epaian jasotzen duenez, «Egitate bidearen kasua gertatzen da», eta uste du «administrazioak hura amaitutzat eman behar duela». Ildo horretan, plaza horien esleipena baliogabetu du, eta tresna egokien bidez erregularizatzea eskatu dio udalari.

# Ia 4,9 milioi euro gehitu ditu udalak aurtengo aurrekontura

Ezohiko egoerari aurre egin eta proiektu estrategikoak garatzen jarraitzeko asmoa adierazi du udal gobernuak; erabaki gehiago ere hartu dituzte maiatzeko osoko bilkuran


## Josu Artutxa Dorronsoro

Maiatzean egin zen azken osoko bilkuran, 2020ko likidazioaren berri eman zuen udal gobernuak. Hasierako aurrekontua 27.375,195 eurokoa bazen ere, behin betikoa ia 8 milioi euro altuagoa izan zen: 35.324.691,20 eurokoa. Udaletik adierazi dutenez, pandemiak eragindako ondorioak arindu eta herritarren beharrei erantzuteko egindako kreditu aldaketek eragin zuten igoera hori.

Azkenean, Foru Funtzaren jaitziera ez zen aurreikusi bezain handia izan: %10ekoa (aurreikuspena %17koa zen). «Udal baliabideak zuhurtziaz kudeatu dira eta kalitatezko zerbitzuak bermatu ahal izan zaizkie herritarrei; horri esker, udalaren egoera finantzarioa ona da, 15,5 milioi euroko gerakinarekin», adierazi dute udal gobernutik.

Likidazioa esku artean, hainbat kreditu aldaketa egin dira. Bilkuran onartu ziren batzuk, eta aldi berean, beste batzuen berri eman zuen udal gobernuak. Ondorioz, ia 4,9 milioi euroko aurrekontu gehigarria onartu zen, ezohiko egoerari aurre egiten jarraitu eta aurreikusitako proiektu estrategikoak eta hirigintza lanak garatzeko.

Ander Figuerido EH Bilduko zinegotziak, 2020ko aurrekontuaren %65 bakarrik exekutatu dela salatu zuen. «Ekitaldirik gogorrenean, inbertsioa gutxitu da. Udalaren altxortegia bete duzue, tolosarron beharretara bideratu ordez». Udal gobernuak kreditu aldaketak egiteko joera ere sala-



Alokairu ordainketa errazten laguntzeko, lehen urratsa eman du udalak. I. URKIZU

tu zuen. «%27 puztu da aurrekontua; beraz, udal gobernuak osatzen dituen aurrekontuak ez dira errealak. Bestetik, aldebat kartasunez eramaten dira aurrea hainbat gai, horietako batzuk, gainera, guk proposatutakoak».

Ekonomiarekin jarraituz, sektore kaltetuenak (turismoa eta ostalaritza) laguntzeko helburuarekin, aho batez onartu zen diru laguntza zuzenak emateko ordenantza. Guztira, 200.000 euro bideratuko ditu udalak. Ostalaritza establezimenduei 1.000 euroko diru laguntza emango zaie, eta kopuru horri 2.000 euro gehituko zaizkio, gehienez ere lau mahai dituzten establezimenduen kasuan. Turismo sektoreko jarduerak, berriz, 3.000 euroko laguntza izango dute.

## ALOKAIRUAK, IRISGARRIAGO

Etxebizitza alorrean herritarrei aukera berriak eskaini eta erraztasunak emateko helburuarekin, udalak aurtengo martxan jarritako neurrien artean dago alokairu ordainketa errazten laguntzeko diru laguntza lerro berria. Laguntza horri, hasierako onarpena eman zitzaion bilkuran, aho batez.

18 eta 35 urte bitarteko gazteei eta behar bereziak dituzten herritar eta familiei zuzendutako laguntzak dira. Horiek jasotzeko

irizpideak eta etxebizitzek bete beharreko baldintzak jasotzen ditu ordenantzak. Gehienez ere, 250 euroko laguntza jasoko da hilean. Hala ere, eta Alde Zaharra biziberritzeko nahiarekin, etxebizitza bertan kokatuta badago, 300 eurokoa izango da laguntza. Ordenantza behin betikoz onartzen denean egingo da deialdia.

Ordenantza onartzea «lorpen handia» izango litzatekeela adierazi zuen Xabier Balerdi EAJ alderdiko zinegotziak. «Beste urrats bat eman dugu etxebizitza politikan, eta honi esker, emantzipatzeko aukerak errazten dizkiegu kolektibo ezberdinei». Oposizioak ere begi onez ikusten du ordenantza. «Funtsezkoa da etxebizitza hutsak merkaturatzeko plana egitea eta merkatu libreko etxebizitzaren gehiegizko prezioak kontrolatzeko neurriak aztertzea», esan zuen Andu Martinez de Rituerto EH Bilduko zinegotziak.

Azkenik, etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen erregelamendu berriari esker, herritarrei eskainitako zerbitzua hobetuko du udalak. Urteko 365 egunetan eskainiko da arreta eta zerbitzua beste kolektibo batzuetara zabalduko da. Era berean, hobekuntzak txertatu dira langileen lan baldintzetan.



## TOLOSAKO UDALA

### IRAGARKIA

“18. Apatttaerrek” hirigintza esparruko “18.1 Tolosa-Ibarrako lurrak” azpiesparruko hiri antolamenduko Plan Berezia. Behin betiko onarpena.

Tolosako Udalbatzak, 2021eko urtarrilaren 28an egindako ohiko osoko bilkuran, besteak beste, hitzez hitz ondoren jasotzen den erabakia hartu zuen:

Behin betiko onespina: “18. Apatttaerrek” hirigintza esparruko “18.1 Tolosa-Ibarrako lurrak” azpiesparruko hiri antolamenduko Plan Berezia.

Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da 2021eko ekainaren 4ean, 104. alean.

Bestalde, Plan Berezia udaleko web orrian kontsultatu daiteke.

Tolosa, 2021eko martxoak 10ean  
ZINEGOTZI DELEGATUA  
XABIER BALERDI TOLOSA

## IRAGARKI LABURRAK

### Lan eskaintzak

**Zerbitzaria.** Tolosako Casa Julian jabetxean zerbitzari bat behar dugu. Interesatuak bidali zuen curriculum lanez eskaintza erreferentziarekin helbide honetara: [casajulian1951@gmail.com](mailto:casajulian1951@gmail.com).



Tolosako Arostegi, Gorostegi, eta Goikoetxea tolosarrak (erdian) dira taldekideetako hiru. J.A.D.

# Perkusioaren barrunbeak herritarrei erakusteko

13-17 urte bitarteko musikariek osatutako Perkusix perkusio taldeak, kontzertu bana eskainiko du Beasainen eta Tolosan, ostiralean eta astelehenean, hurrenez hurren

**Josu Artutxa Dorronsoro**  
Tolosa

2019an, Tolosako eta Beasaingo musika eskolen elkarlanari esker, Perkuseven perkusio taldea sortu zuten eskola horietako zazpi ikaslek. Beasaingo Oier Gibelalde, Ander Zubeldia eta Axier Olano, eta Tolosako Manex Gorostegi, Bittor Arostegi, Unai Aristi eta Jon Martinez ziren orduan taldeko kideak. Azken biek, ordea, taldea uztea erabaki zuten, eta haien orde, Mario Goikoetxea tolosarra sartu zen. Orain, bera da guztietan gazteena. 13 urte ditu; gainerakoek, berriz, 16 edo 17 dituzte.

Kide aldaketek, izena aldatu beharra ekarri zioten taldeari; Perkusix izatera igaro zen. Horrek, ordea, ez zuen gehiegi eragin taldearen dinamikan, eta sortu zen urte bereko Santa Zezilia egunean egin zuten debuta. Tolosako musika talde gehiagoren saioekin batera osatu zuten Leidorreko egitaraua. Gerora, Beasainen ere egin zituzten kontzertu batzuk, baina pandemiaren eraginez, guztia geratu behar izan zuten iaz.

Orain, baina, bueltan dira, eta etxean ariko dira berriz. Etzi, ostirala, Beasaingo Erauskin Plazan joko dute, 20:00etan hasita. Hilaren 14an (astelehena), berriz, Tolosako Zerkausian eskainiko dute kontzertua, 19:00etan hasita. Tolosak eta perkusioak,

gainera, badute lotura berezia. Asko dira goi mailan aritzea lortu duten puntako perkusio-jotzaile tolosarrak, besteak beste, Euskadiko Orkestra Sinfonikoan aritutako Jose Carrera, eta gaur egun dabilzan Xabier Peña eta Igor Arostegi, Nafarroako Orkestra Sinfonikoan dabilen Javier Odriozola, hainbat taldetan dabilen Iraide Ansorena, eta Jesus Mari Garmendia.

## 30 INSTRUMENTU EZBERDIN

Hain justu, beste tolosar bat da Perkusix taldeko zuzendaria: Karlos Alcalá. Ikasle horien irakasle izan da Tolosako nahiz Beasaingo musika eskoletan, barka, baina kasu honetan, seiko taldean hezten ditu. Arrazoi askorengatik, kontzertuak «oso bereziak» izango direla aurreratu du. «Etxean joko dute, batzuentzat azken saioak izango dira, eta aldi berean, bai Beasainen, baita Tolosan ere, lehen aldiz egingo da perkusio talde baten kontzertu bat aire librean. Musika eskoletan bai, baina kalean inoiz ez da horrelakorik antolatuko».

Askotariko melodiez, erritmoez eta instrumentuz gozatzeko aukera izango dela aurreratu du Alcalá. «Guztira, 30 instrumentu ezberdin erabiliko ditugu. Obrei dagokienez, denetik izango da: afrikarrak, etnikoak, perkusio klasikoa, gorputzeko atalekin sortutakoa... gehienak seikotean, baina badira laukotean jo

beharrekoak ere». Hain justu, *Four for four* izango da laukotean joko duten kantuetako bat. «Perkusioaren erreperorioan, obra garrantzitsuena izango da, mundu osoan jotzen baita. Erritmo aldaketa handiak ditu eta indar handikoa da, ikusleak inpresionatzeko modukoa», azaldu du zuzendariak.

## DANBOR BAT BAINO GEHIAGO

Bi helburu nagusi ditu buruan Alcalá. «Batetik, proiektuaren helburua dago, formakuntza alegia. Bestetik, berriz, kontzertuaren helburua: perkusioak duen aniztasuna publikoki erakustea, herritarrei instrumentu familia hau gerturatzea, tresnak eta interpreteak begien aurrean jartzea. Guztiok dakigu zer den biolin edo piano bat, baina perkusioa beti geratzen da ezkutuan, askok uste dutelako danbor bat besterik ez dela. Baina ez da horrela».

Ez da ikasturte erraza izan taldearentzat. Apirilean, positibo bat tarteko, ezin izan zuten Bilboko lehiaketa batean jo. Hala ere, gogotsu eta ilusioz gainezka itzuli dira entseguetara. «Kide batzuek azken ikasturtea burutu dute musika eskolan zein taldean, eta beraz, ziklo bati amaiera emateko aukera bikaina izango dute kontzertu hauetan», esan du Alcalá. Gerora, hala ere, Perkusixen filosofiari eusteko asmoa du, ikasle berrien eskutik.

# Euskal Herriko eta Herrialde Katalanetako folklorea, eskutik

Pirinioetako 430 kilometroak baliatu dituzte Amaiur Luluaga eta Claudia Gomez dantzariak eta Alex Lopez eta Iñaki Plaza musikariek bi herrietako dantzak eta musika uztartzeko

**Erredakzioa** Anoeta

Musika eta dantzaren bidez Euskal Herriko eta Herrialde Katalanetako folklorea uztartu dituzte *Pyrene 430* ikuskizunean. Anoetan ikusi ahal izango da igandean, hilak 13, 18:00etatik aurrera, Abraham Olano Kiroldegian, eta Anoeta bertakoa da protagonistetako bat, Amaiur Luluaga dantzaria, hain justu.

Bi dantzariren eta bi musikariren arteko elkarlanetik sortu da emanaldia eta Gasteizen estreinatu zuten, Aitzina Folk jaialdian, baina orduetik pandemia dela eta ez dela, ezin izan dute nahi beste zabaldu. Claudia Gomez eta Amaiur Luluaga dira dantzariak, eta Iñaki Plaza eta Alex Lopez musikariak.

Anoetarrak proiektua nondik sortu zen gogoratu du: «Claudia Gomez eta nik Bartzelonan eza-gutu genuen elkar eta gure kulturak dantza bidez elkarri azalduz ibiltzen ginen. Iñaki Plaza trikitilariarekin elkartu eta berak proposatu zigun bi folkloreen arteko fusioa egitea».

Aitzakia horrekin Pirinioak gurutzatzen dituzten 430 kilometro horiek hartu zituzten oinarri eta Nafarroatik Kataluniaraino ibilbidean zehar dauden herri eta zonalde desberdinak ukitu nahi izan dituzte. «Ezaugarri oso zehatzak dituzten dantzak hartu ditugu eta emanaldian zehar erakusten ditugu. Lengoia garaikideago batera

eraman ditugu, bai musikalki eta baita dantzaren bidez».

Emanaldia ordubete ingurukoa dela aurreratu du eta dantzaz gain, zuzeneko musikarekin gozatzeko aukera izango da. «Emanaldian gelditu gabe gaude eta badu antzezpenetik ere. Ikuskizun alaia eta freskoa da, eta ikuserraza».

Sorkuntza lana «oso bizia» izan zela gogoratu du Luluagak: «Pasa den abuztuan jaio zen, eta bi aste elkarrekin egon ginen buru-belarri. Pirinioetako dantza tradizionalak hartu genituen, diren bezala, eta Iñaki eta Alexekin batera guztia egokitzen joan ginen. Erritmoa mantentzen da, baina melodiak moldatuz joan gara eta garapen berarekin eraldatu ditugu dantzak. Lanketa handia dago atzean. Eraldaketak egiteko zein dantza diren, zein garai eta egunetan dantzatzaren diren, eta zein tasingurutan dantzatzaren diren hartu dugu kontuan. Bi herrien arteko dantzek badituzte komunez gauzak, baina egia da euskal dantzak teknikoki zailagoak direla. Elementu asko dituzte komunean, hala ere; makilak erabiltzen dituzte, erritmo aldetik antzekotasunak daude...».

Claudia Gomezek euskal dantzak ikasteko sekulako lana egin duela nabarmendu du ere, Luluagak. «Interes handia du, lan handia egin du eta kristoren meritua du. *Arin-arina* erraz dantzatzaren du orain».



Amaiur Luluaga, Iñaki Plaza eta Claudia Gomez. ATARIA

# Irakurketa feministak konpartitzeko eta plazaratzeko topaketa

Tolosaldeko Irakurketa Feminista Taldeen I. Topaketa antolatu dute, Altzon; egun osoko egitaraua prestatu dute larunbaterako, eta parte hartzeko izena eman behar da

**Eneritz Maiz Etxarri** Altzo

Altzon antolatu dute Tolosaldeko Irakurketa Feminista Taldeen I. Topaketa. Larunbatean izango da irakurleen topaketa, eta egun osoko egitaraua prestatu dute irakurketa feministen gainean parte hartu nahi duen guztiei irakurketa.

Altzon urte batzuk daramatzate dagoeneko feminismoa eta parekidetasuna arlo ezberdinetatik lantzen. Marta Agirrezabalak da antolatzaileetako bat, eta Altzon urteetan egin duten lanaren barruan sortu dela literatura-ri lotutako topaketa berri hau azaldu du. Aurtengo ikasturtean literaturari ikuspegi feminista batetik heldu diote, eta Kattalin Minerren laguntza izan dute irakurle taldean. «Oso gustura aritu gara», esan du. Ikasturtean zehar irakurketa feministak egin dituzte herrian, eta taldea irekia eta zabala izan dela dio. Ikasturtea borobiltzeko ekimen bat aurreikusten zutela argitu du Agirrezabalak, eta haxe da sortu duten ekimena: Tolosaldeko Irakurketa Feminista Taldeen I. Topaketa. «Ilusioz beteta» daudela adierazi du antolatzaileak.

Herri txikia izanik, ia guztia denen artean egiten dutela kontatu du: «Dinamika ona dugu he-

rrian, eta uste dut hori dela oinarrian agerian geratzen dena. Batzorde batetik ez bada bestetik, herri oso dinamikoa da, eta iniziatiba handikoa». Topaketa hauen atzean udaleko Berdintasun saila, gazteen Beroa talde feminista, Mariren Alabak talde feminista eta irakurle taldea bera daude.

**«Eraman beharreko liburuan, zerk eragin dion liburu hori eramatera zehaztea nahiko genuke»**

**«Dinamika ona dugu herrian, eta uste dut hori dela oinarrian agerian geratzen dena»**

**MARTA AGIRREZABALA**  
ANTOLATZAILEA

Urtean zehar egin dituzten irakurketa feministak konpartitu eta plazaratu egin nahi dituzte larunbateko topaketarekin. Taldean sortu diren jakintza, hausnarketa eta eztabaidak publikora pasatzea nahi dute, eta horiek elkarbanatzea dute helburu.

Tolosaldean dauden irakurle talde feministei zuzenean bidali diete gonbidapena topaketan

parte hartzeko, eta horrez gain, edozein irakurle taldetako partaidek eman dezake izena edota edozein norbanakok. Erabat irekia dela azaldu dute Altzotik, baina gaur egungo osasun egoera dela eta, nahitaezkoa izango da izena ematea; [irakurketafeministak@gmail.com](mailto:irakurketafeministak@gmail.com) helbide elektronikora idatzi beharko da, eta egun osoko ekitaldietan parte hartu nahi den, edo goiz edo arratsaldeko joatekoa den zehaztu beharko du izena ematen duenak.

## EGUN OSOKO TOPAKETA

11:30ean emango diote hasiera topaketari, eta hasteko elkartu eta lehen pausoa elkar ezagutzea izango da. Jarraian, irakurketa feministak konpartituko dituzte, eta lan horretan Minerren parte hartzea izango dute. Nolabait, irakurketa talde berezi bat gidatu beharko duela aurreratu du Agirrezabalak, baina ez du argibide gehiagorik eman nahi izan eta ezustekoa izatea nahi dute.

Plaza izatea nahi dute topaleku, eta eguraldi ona egitea baino ez dute behar horretarako. Atsedean bat hartuko dute, eta elkarrekin bazkaltzeko aukera izan dezaten lekua prestatuko dute. Bazkarirako aukera ezberdinak jarri dituzte, eta norberak bere



Altzoko irakurle talde feminista da topaketen antolatzaileetako bat. ATARIA

otordua eramanez, edo herriko ostatuan ogitartekoak eskatzeko aukera emango dute.

Arratsaldean bertso saio literarioa egingo dute. Irakurgai izan dituzten bi libururen egileak izango dira Altzon, hau da, Uxue Alberdi eta Miren Amuriza bertsolariak, eta nahiz eta bere libururik ez duten aztertu Ane Labak bertsolaria eta idazlea ere bertan izango da.

Saio horiek berezitasun bat izaten dute, eta Miner izango da kasu horretan gai jartzailea; literatur sorkuntza izango dute abiapuntu, eta hortik abiatu beharko dute hiru bertsolariak.

## LIBURU BAT TRUKERAKO

Topaketan parte hartuko duten guztiei emakumezko batek idatzitako liburu bat eramateko eskatuko diete Altzora.

Liburuen azoka txiki bat egin nahi zuten, baina osasun egoera tarteko ezin izan dute antolatu. Horren ordez, trukerako aukera zabalduko dute. «Liburu bat eramanez, eta beste bat hartzeko aukera izango dute», esan du Agirrezabalak.

Eskaera txiki bat ere egingo

diote utzi behar duen liburuaren harira: «*Post-it* edo orri batean zerk eragin dion liburu hori eramatea zehaztea nahiko genuke, eta horrela jasotzen duenak jakingo du eskaintzen duenak zergatik uzten duen hor». Honela, interesatzen zaion gairen bat aurkitu dezake liburuen artean trukerako bila dabilen horrek.

Topaketari lotuta, poltsak atara dituztela azpimarratu du, eta dagoeneko herriko Ostatuan salgai jarriak dituzte 10 euroren truke. Egunean bertan ere erosteko aukera izango da.

## EGITARAUA

### Ekainak 12, larunbata

**11:30.** Irakurketa feminista taldeen topaketa, Kattalin Minerren gidaritzapean.

**14:00.** Bazkaria. Norberak bere etxetik eramanda edo goizean ogitartekoak eskatzeko aukera zabalduko da.

**17:00.** Bertso-saio literarioa Uxue Alberdi, Miren Amuriza eta Ane Labakarekin.

Nahitaezkoa da izena ematea: [irakurketafeministak@gmail.com](mailto:irakurketafeministak@gmail.com).

Hilberriak eta urteurrenak



## Lurdes Olazabal Peñagarikano

(Inazio Leundaren alarguna)  
Herenegun hil zen, 87 urte zituela.



Bere seme-alabak: Maitere (†), Rosario eta Jexux Elustondo, Iñaki eta Amaia Etxeberria; bilobak: Oinatz eta Maite, Ihintza, Eider eta Aitzol, Iraide, Aimar eta Elene; anai-arrebak, koinatu-koinatak, ilobak, lehengusuak, San Martin egoitzako lantalde osoa eta gainerako ahaideak.

Haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezte GAUR, ASTEAZKENA, ARRATSALDEKO ZAZPIETAN Azpeitiko SOREASUKO SEBASTIAN DONEAREN parroki elizan gorpua bertan dela egingo den hiletara.  
Aldez aurretik, mila esker.

AZPEITIAN, 2021eko ekainaren 9an  
Oharra: Hilbeila GAUR, ASTEAZKENA, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:30era  
Azpeitiko CARMONA EHORTZETXEAN izango da.

## ataria jarrita Urola Kostako eta Goierriko Hitzetan DOAN

### Eskelak orain merkeago!

|                                                                                  |
|----------------------------------------------------------------------------------|
| TXIKIA (82mm X 64mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €                              |
| HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €                             |
| ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €<br><small>bez barne</small> |

ESKELAK • [ataria@ataria.eus](mailto:ataria@ataria.eus) • Tel.: 943-65 56 95  
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu •  
Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

# Kulturari lekua egingo diote datozen egunetan Berrobin

Ekainean zehar kulturaldia ospatuko dute; «herritar guztiek parte hartzeko moduko saioak» antolatu dituzte hilaren 19ra arte

**Irati Saizar Artola** Berrobi

Kulturaldia ospatzen hasi dira Berrobin. Berez, maiatzean ospatu ohi dute, baina aurten hila-beteko atzerapenarekin bada ere, egitarau zabala osatu dute ekainerako. Udalak, Ibin Kirol Elkartek eta Guraso Elkartek elkarlanean prestatu dituzte ekitaldiak, ekainaren 19a bitarte.

Argazki lehiaketarekin eman zioten hasiera kulturaldiari pasa den astean, eta larunbat arratsaldean jarraitu zuten pilotalekuan

egindako zumbako klasearekin. Antolatzaileek esan dutenez, «herritar guztiek parte hartzeko moduko saioak» antolatu dituzte, eta protokoloek eskatzen dituzten neurri guztiak beteko dituztela baieztatu dute.

Zenbait jardueretarako beharrezkoa izango da izena ematea, eta udaletxean bertan, 943 683 294 zenbakian edota *berrobi.eus* webgunean egin beharko da. Izena emateko epea ekitaldia hasi baino bi ordu lehenago amaituko da.

## EGITARAUA

### Ekainean zehar

**Erakusketa.** Argazki lehiaketako erakusketa irekiera liburutegian.

### Gaur

**Ping-pong eta dardo txapelketa.** Gaztegunean izango da, 17:30ean.

### Ekainak 11-12

**‘Balkoitik balkoira’ antzezlan.**

Txalo Talo antzerki taldearen eskutik, eskolan. Ostiralean bi saio: 19:00etan eta 20:00etan. Larunbatean hiru saio: 18:00etan, 19:00etan eta 20:00etan. Izena eman behar da.

### Ekainak 13

**T2T/T3Tko lasterkariak animatzera Ibinera.** 09:30ean plazatik. **Herriko dantzarien emanaldia.** Plazan izango da, 18:00etan. **‘La otra kalle’ taldearen kontzertua.** Dantzarien ondoren.

### Ekainak 14-18

**IV. Atzeko txokoko esku pilota txapelketa.** 16:00-20:00.

### Ekainak 15

**Literatur eta argazki lehiaketako sari banaketa.** Liburutegian izango da, 18:30ean.

### Ekainak 16

**Iker Karrera mendi lasterkariaren dokumentala eta ‘Bidea ipar’ liburuen aurkezpena.** Solastokin, 19:00etan. Izena eman beharko da.

### Ekainak 17

**Ipuin kontalaria.** *Amelie eta xirriktuen jostunek.* Eskolako jolasleku txikian, 18:00etan.

### Ekainak 18

**‘60 urte betetzera noa’.** Barry Manley irlandarraren bakarrikzeta saioa. 19:00etan, Solastokin. Izena eman behar da. Sarrera 3 euro ordaindu beharko da eta edaria barne izango da.

### Ekainak 19

**Erroizpera mendi irteera.** 08:30ean, plazatik abiatuta.



Larunbat arratsaldean zumbako saioa izan zuten frontoian, gorputza mugitu eta izerdi pixka bat ateratzeko. ATARIA

## ‘Balkoitik balkoira’ obra estreinatuko du Txalo Talok

**I.S.A.** Berrobi

Berrobin Txalo Talo konpainiak ikuskizun berri bat estreinatuko du ostiral eta larunbatean, herrian bertan: *Balkoitik balkoira*. Eskolan egingo dituzte emanaldiak, ostiralean, 19:00etan eta 20:00etan, eta larunbatean 18:00etan, 19:00etan eta 20:00etan. Antzezlanak ikustera joan nahi duenak aurrez izena eman beharko du udaletxean bertan, 943 683 294 zenbakian edota *Berrobi.eus* webgunean.

Hogei minutu iraungo dituen antzezlanak prestatu dutela azaldu du Aran Rodas Txalo Talo konpainiako kideak: «Jaz prestatzen hasiak ginen obraren zati bat eramango dugu oraingoan oholtzara; berez, pandemia hasieran, lan luze bat genuen eskuartean, baina entseguen eta aurrera egitea kosta egin zaigunez, *Balkoitik balkoira* obra aurkezteko pentsatu dugu».

Izan ere, Txalo Talo taldekoak iazko ekainean aurkezteko obra luze bat ari ziren prestatzen pandemiak bete-betean harrapatu zituenean, eta obra hori atzeratu egin behar izan zuten, harik eta urte bete pasa den arte. Elkartzeko «zailtasunak» tarteko, zati bat hartu eta lan luzea, osoa, urtea amaitu baino lehen aurkezteko

moduan izango direla aurreratu du Rodasek.

«Antzezlanean bizi izan dugun pandemia egoerari tarte bat eskaini behar geniola pentsatzen genuen, koronabirusak ekarri dizkigun hainbat gauza erakutsi nahi izan ditugu, eta horrela, taldeari egoera honek eman dion geldialdia islatu dugu», azaldu du. «Alde komikotik arituko gara, baina pandemiarekin bizitu duguna, sentitu duguna eta kulturari ere eragin diona aurkeztuko dugu».

Mikel Agirretxe, Ana Goñi, Aloña Izagirre, Joseba Izagirre, Aran Rodas eta Oihane Vergara aktoreak eta Ester Poveda zuzendaria dira Txalo Talo konpainiako kideak eta *Balkoitik balkoira* antzezlanak aurrera eramango dutenak. Obraren zehar, pertsonaia «kuriosoak, desberdinak» ikusi ahaliko dira: «batetik, jende gaztea irudikatuko duena, parrandazaleagoak batzuk, beldurtiagoak besteak; bestetik, helduagoa den jendea, teknologia aurrean arazoak dituen, bere buruarekin etsituta dagoena... denetik».

Haur, gazte eta helduentzako moduko lana antzeztuko dute, herritar guztientzako. «Alde komikotik doaz esketx batzuk, baina obra honetan musika, mugi-

mendua edota dantza txertatzen ere saiatu gara, kulturari eta taldekideei egoera honek ekarri diona islatuz».

### TXALO TALO KONPAINIA

Txalo Talo arte eszenikoen sustapenerako elkartea da, duela bi urte inguru sortu zuten, Rodasek azaldu duenez: «Lehiaketa desberdinetan parte hartzearen ondorioz, gauzak formaldu eta talde solido bat genduela ikusi genuen, eta taldea sortzea pentsatu genuen». Hala ere, antzerki tailerra 2015 ingurutik dago martxan, eta hortik sortu dute taldea. Orduetik, urtero, antzezlan bat aurkeztu dute herrian, eta aukera dutenetan, inguruko herrietara ere joaten dira lana erakustera.

Ikasturtean zehar astelehenean egin ohi dute antzerki tailerra. Pare bat orduz aritzen dira normalean, baina taldekideen konpromisoa eta beharren arabera, moldatu egin ohi dute. Obra bat estreinatzean dutenean, ordea, asteko egun guztiak behar izaten dituzte askotan.

Uda atsedenerako hartu ohi dute, eta halaxe egingo dute aurrera. Baina dagoeneko irailerako emanaldi bat lotu dute herri batean, eta Rodasek esan duenez, «interesa pizten bazaio norbaiti, joateko prest egongo ginateke».

# «Lorpen handiena baino, politena izan da»

## ITZIAR GASTEARENA FUTBOLARIA

Esperientzia berria bizi ahal izan du aurtengoan Gastearenak, ez baita urtero Lehen Mailara igo izana ospatzea egokitzen

**Imanol Garcia Landa**  
Amasa-Villabona

Lehen aldiz igo da Alaves taldea Lehen Mailara eta bertako jokalaria da Itziar Gastearena (Villabona, 1993). Ez da berarentzat zerbait berria izango, Realarekin aritu izan baita maila horretan lehiatzen.

### Zer suposatu du Lehen Mailara igotzeak?

Egia esan oraindik ez dugu guztiz sinesten igoera hori, baina azkenean errealitate bihurtu da urte hauetan lortu nahi genuena.

### Hori zen aurtengo helburu garbia taldearentzat?

Aurreko urtean gehiago pentsatzen genuen igoera horretan, eta aurtun bi fase izan direnez, ez genuen igoera hain presente eta horrek lagundu du.

### Klubarentzat berezia izango da, bi talde nagusiak Lehen Mailan dituelako.

Bai, gainera aurtun Alavesen ehungarren urteurrena da. Mutlak ere azken unera arte egon dira borrokan ez jaisteko, eta uste dut urte borobila izan dela klubarentzat.

### Azken partidara arte ez zenu-

### ten lortu igoera. Nola bizitu zenuen?

Azken aurreko partidaren ere, Oviedoren aurka, aukera genuen igotzeko, irabazi izan bagenu. Atletico Madrilen kontra jokatu genuen azken partidaren lortu behar izan genuen igoera, baina uste dut urduriago geundela Oviedoren aurkakoa. Agian partida hori etxean zelako, normalean ikustera joaten ez zen jendea joan zelako ere bai; buelta asko eman zitzaion partida horri eta uste dut kalte egin zigula. Azken partidarako igoera gure esku zegoela bagenekien; urdurita-



Itziar Gastearena, partida batean. DEPORTIVO ALAVES

sun puntua bagenuen, baina aldi berean lasai geunden, eta bagenekien lortu egingo genuela.

### Epaileen azken txistua entzutea berezia izango zen.

Ni zelai barruan nengoen, 0-2 irabazten gindoazen, eta bagenekien 10 minutu falta zirela zaila izango zela partida galtzea. Hor urduritasuna gero eta handiagoa zen, eta amaierako txistua jo zuenean sekulakoa izan zen guztiontzat.

### Futbolari bezala zure lorpen handiena dela esango zenuke?

Lorpen handiena baino gehiago, politena. Realean aritu izan naiz Lehen Mailan, baina zuzenean hor hasten zara. Ez da berdina talde batekin zu igotzea Lehen Mailara. Uste dut sekulako esperientzia izan dela aurtengoa, bukaerara arte tentsio hori izatea. Futbolari bezala oso polita izan da.

# «Igoera oso ona da klubarentzat, herriarentzat eta jokalarientzat»

## MIKEL SAIZAR ETA AITOR ALDALUR FUTBOLARIAK

Datorren denboraldia gogorra izango duten arren, Bigarren Mailan Amorebietarekin gozatzeko asmoa dute bi futbolariak

**I. Garcia Landa** Ibarra/Tolosa

Bigarren Mailan jokatu dute datorren denboraldian Mikel Saizar (Ibarra, 1983) eta Aitor Aldalur (Tolosa, 1991) futbolariak. Amorebieta taldea bere historian lehen aldiz ariko da maila horretan. Hain justu, Bigarren Mailan Ander Gorostidi tolosarrarekin egingo dute topo, Alcor-

con taldearekin mailari eustea lortu baitu.

### Igoera Badajozen aurkako partidaren lortu zenuen.

**Aitor Aldalur.** Oso partida zaila genuela bagenekien, partida oso gogorra egin eta gure onena ater behar genuela bagenekien. Tentsio handiarekin bizitu genuen, baina baita disfrutatuz ere.



Mikel Saizar eta Aitor Aldalur, igoera ospatzen, Badajozen zelaian. ATARIA

### Zuk, Mikel, geldiketa garrantzitsu bat egin zenuen.

**Mikel Saizar.** Atezain izanik, protagonista izaten zara, onerako eta txarrerako, eta orduan onerako tokatu zen. Geldiketa on bat egin nuen, eta gustura. Pentsatzen nuen gol izango zela, baina azken momentuan eskua ater nuen. Momentuan ni ere pixka bat flipatuta geratu nintzen, eta pentsatu: hau ater baldin badut, pasa gara dagoeneko. **Igoera lortu zenuen unea zorramena izango zen.**

**M.S.** Epaileak txistua jotzen duenean une ederra izaten da. Futboleko gauzarik onena da, igoera bat lortzen duzunean, txistua entzuten duzun une hori. Urte osoko oroitzapenak etortzen zaizkizu: zenbat ordu pasa dituzun entrenatzen, zenbat bidaia-tzen, zenbat jolasten, eta hortxe bukatzen dela dena eta lortu duzula...

### Beste une berezia Zornotzara bueltatzerakoan izango zen.

**A.A.** Polita izan zen. Gure familiariekin eta lagunekin ospatu ge-

nuen aurrena, eta oso hunkigarria izan zen. Gero bidaia egin eta gero, Zornotzara iritsi ginenean, jendea kalera ater zen, eta estadioan bertan jende asko zegoen eta harrera polita egin ziguten.

### Denboraldi hasieran helburua igotzea zen?

**M.S.** Aurtun denboraldi arraroa zela bagenekien, Bigarren Maila eta Bigarren B mailaren artean beste maila bat egin behar zuten, eta horra nahi genuen igo. Horretarako aurreneko hiruretan geratu behar ginen, eta hori lortu genuen. Lehen hiru horiek jokatzaren zuten Bigarren Mailarako igoera, eta hor presiorik gabe geunden. Gero Linaresi irabazi genion, eta azkenik Badajoz. Bi partidetan taldea oso sendo egon zen, gustura eta disfrutatzen eta hori emaitzetan nabaritzen da.

### Badajoz talde handiagoa da Amorebieta baino. Zer jarre-rarekin joan zineten bertara?

**A.A.** Aurrekontu aldetik zein masa sozialaren aldetik Badajoz askoz handiagoa da, eta gainera, beraien zelaian jokatzeko tokatu zitzaigun. Presioa beraiek zeukaten eta gu aurretik jarri ginenean, nik uste dut bigarren zatian nabaritu zitzaizela presio hori. Azkenean ezin izan zuten bere jokoa ater.

### Zer aldatuko da Bigarren Mailatik Lehen Mailara?

Ikusten ari gara futbola nola ari den aldatzen. Begira Bartzelonak zer lortu duen, Liga, Champions txapelketa eta Kopa irabaziz. Emakumezkoen futbol taldeetan sekulako pausoak ematen ari direla ikusten ari gara eta, beraz, badakigu maila asko igoko dela, baina gu talde berri bezala goaz, ez dugu ezer galtzeko eta disfrutatzen joango gara.

### Bigarren urtea duzu Alavesen. Ze ibilbide egin duzu bertara iritsi arte?

Realak denboraldi erdian fitxatu ninduen, eta bertan zortzi urte eta erdi egon nintzen. Gero Eibarrrera joan nintzen, eta han urtebete egin eta gero, Alavesera etorri nintzen.

### Realera joan aurretik Tolosan egon zinen.

Bai, Villabonak talderik ez zue-  
nez, eskolaz kanpoko jardueretan areto futboleko ibiltzen nintzen. Tolosak nirekin kontatu zuen; osaba entrenatzen aritzen zen eta lehengusuak ere hor ibiltzen ziren. Oso gustura egon nintzen; gazte-gaztea nintzen, jende helduagoarekin ibili nintzen, eta lagundu zidan pertsona zein futbolari bezala hazteko.

### Zer suposatzen du Amorebietarentzat Bigarren Mailara igotzea?

**M. S.** Biok pasa den urtean sinatu genuen Amorebietarekin, biok Burgostik etorrita. Aitorrek ezagutzen zuen Amorebieta, nik ez, eta oso antzekoa da kluba Tolosa CF-rekin alderatuta. Herria ere antzekoa da, giroa badago, eta kluba ere oso antzekoa da. Ezberdintasuna da Amorebieta Bigarren B mailan zegoela. Zuzendaritza berria sartu zen eta gauzak oso ondo egin dituzte. Bai klubarentzat eta bai herriarentzat oso ona da Bigarren Mailan egotea.

### Orain diru gehiago sartuko zaio klubari. Zuen soldatan ere eragina izango al du?

**A.A.** Amorebieta ez da Bigarren B mailan asko ordaintzen duena, baina behin Bigarren Mailara igota, soldatetan gutxieneko bat zehaztuta dago, eta kopuru horrek alde handia suposatzen du orain arte jaso dugunarekin alderatuta. Mikelek esan duen moduan, igoera hau oso ona da klubarentzat, herriarentzat eta jokalarientzat, eta denak oso pozik gaude.

### Zu, Mikel, Bigarren Mailan jokotuta zaude aurretik. Zerbait gomendatu diozu Aitorri?

### Ikusten duzu aldatzen ari dela orokorrean emakumezkoen futbolaren egoera?

Asko hazten ari da emakumezkoen futbola eta asko egiten du hedabideek ikusgarritasuna emateak. Orain telebista ere asko sartu da, batez ere Lehen Mailan, eta pixkana jendea ere engantxatzen ari da.

### Alaves kluba apustua egiten ari da emakumezkoen futbolean?

Lau urte daramatza taldeak eta dagoeneko Lehen Mailara igotzeak asko esaten du. Klubak asko inbertitu du proiektu honetan, aurrerapauso handiak egin dira denbora gutxian eta ikusten da Alaves indarra ematen ari zaiola emakumezkoen taldeari.

### Zu zeu nola sentitzen zara taldean?

Zortea izan dut entrenatzaileak konfiantza handia jarri duelako nigan eta uste dut ondo erantzun dudala. Nahiko konstantea naiz eta gustatzen zait postua borrokatzea; uste dut oso langilea naizela eta lortu dut postua irabaztea eta oso gustura nago pertsonalki. Azkenean, jolasten ari zarenean taldeko parte sentitzen zara eta hori ere garrantzitsua da gustura egoteko.

**M.S.** Aurreneko gauza debutean afaria ordaindu beharko didala... (kar, kar). Bigarren Mailan dena azkarrago joaten da, dena politagoa da, zailagoa da... Baina oso alboko ona da, defentsa aldetik oso indartsua da, eta ondo joango zaio.

### Eta zuretzat, Mikel, zer suposatzen du berriro Bigarren Mailan aritzeak?

**M.S.** Sekulako poztasuna. 38 urterekin berriro Bigarren Mailara joatea, eta Amorebietarekin, ez zen nire planetan sartzen. Denboraldia aurrera joan ahala sinisten joan gara, eta niregatik baino gehiago Aitor eta bera bezalako jokalarientzat poztu naiz. Urte asko daramatza Bigarren B mailan, eta kirol aldetik ez dago horrenbesteko ezberdintasunik, baina ekonomikoki bai. Esaten den moduan, kaka asko jatea tokatu zaio eta orain gozatzeko garaia iritsi zaio.

**A.A.** Saltzen den futbolariaren bizitza hori gehiago da Lehen Mailan eta Bigarren Mailan, Bigarren B mailan baino. Datorrena oso denboraldi zaila izango da. Gu maila eustera lortzera joango gara, disfrutatzen lehiatzearekin batera, eta oso zaila izango da, baina erakutsi dugu oso talde gogorra garela.

# Igoera lortu ez arren, gustura egindakoarekin

Redline Mekanika TAKE azken unera arte egon da igoera lortzeko aukerekin, «oso gogorra» izan den denboraldian

I. Garcia Landa Tolosa

Azkenean ez du saskibaloiko Redline Mekanika TAKE taldeak igoera lortu, Leioaren aurkako igoera faseko azken partida galdu ondoren. «Oso partida borrokatua izan zen eta hiru puntu-rengatik galdu genuen», esan du Goar Artetxe entrenatzaileak. «Aho zapore on batekin ezin izan dugu bukatu denboraldia, baina kontentu gaude egindako urtearekin».

Igoera fasea oso berdindua eta borrokatua izan da, eta nahiz eta Leioaren aurka azken partida irabazi, ez zuten ziurtatuta mailaz igotzea. Azkenean Leioa eta Getxo izan dira igoera lortu dutenak. «Lau talderen artean igoera fasean izan dugun lehiakortasun hori polita izan da eta ikasteko balio izan digu bai guri bai eta gure jokalariei», dio Artetxek.



Redline Mekanika TAKEko taldekideak, Leioaren aurkako partidari. ATARIA

Klubaren helburua ez zen igoera lortzea. «Helburu hori izan bagenu eta lortu gabe geratzea, pena izango litzateke, baina ez genuen helburu hori», esan du entrenatzaileak. Denboraldia «oso gogorra» izan dela gaineratu du. Aurreko urtean lau hilabetez jokatu gabe egon ziren jokala-

riak eta horregatik abuztu hasieran ekin zioten denboraldia prestatzeari, inoiz baino lehena-go. «Azkenean hamar hilabete izan dira, eta horrelako denboraldi ezohikoan, normala den moduan, jokalariek bai mentalki eta bai fisikoki ere pixka bat mugan iritsi dira», esan du Artetxek.

# Mikel Alvarez pultsularia, Euskadiko txapeldun

Erredakzioa Zizurkil

Maiatzaren 29an jokatu zen Euskadiko Txapelketa, banaka eta herrialdeka, eta Danok Danena taldeko Mikel Alvarez izan zen onena gizonetzkoen sailkapen orokorrean. Laugarren postua lortu zuen Ekaitz Kortajarena taldekideak. Emakumezkoetan bigarren postua eskuratu zuen Susana Davilak sailkapen orokorrean eta hirugarren izan zen Elena Mangas. Herrialdeka Gipuzkoa izan zen irabazle, bai gizonetzkoetan zein emakumezkoetan, eta selekzio bakoitzean Danok Danenako pultsulari ugari parte hartu zuten.

Taldeko pultsulariek emaitza onak lortu zituzten. Emakumezkoetan, 49 kiloko kategorian, Naiara Madrid bigarren izan zen; 59 kilo kategorian, Susana Davila txapelduna izan zen, Daniela Perez bigarren eta Amaia Blanco



Gipuzkoa ordezkatu zuten pultsulariak, tartean Danok Danenakoak. ATARIA

hirugarren. 64 kilokoan, Zalao Iturbe laugarren izan zen. 71 kilokoan, Elena Mangas txapelduna izan zen. 76 kilokoan, Nalu Herranz bigarren eta Allison Rivera hirugarren.

Gizonetzkoetan, 61 kiloko kategorian, Jon Kepa Kortajarena bigarren izan zen. 67 kilokoan, Ekaitz Kortajarena txapeldun. 73

kilokoan, Mikel Alvarez txapeldun eta Pablo Ucero hirugarren. 81 kilokoan, David Rubio txapeldun eta Jon Rodriguez bosgarren. 89 kilokoan, Asier Gallego bigarren izan zen. 96 kilokoan, Gorka Endjilo laugarren, eta 102 kilokoan Jon Ander Iriarte txapeldun eta Aitor Tecedor bigarren.



**ASTEAZKENA, 2021EKO EKAINAK 9**  
**Argitaratzailea:**  
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM  
**Lege Gordailua:** SS-1323-2013  
**Koordinatzailea:** Rebeka Calvo Gonzalez  
**Kudeatzailea:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe  
**Egoitza:** San Esteban, 20, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95.  
**E-posta:** ataria@ataria.eus  
**Publizitatea:** 661 678 818. publi@ataria.eus

**Tolosa:** 687 410 082. tolosa@ataria.eus  
**Villabona-Aiztondo:** 687 410 022.  
villabona-aiztondo@ataria.eus  
**Anoetaldea:** 687 410 022.  
anoetaldea@ataria.eus  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus  
**Alegialdea:** 687 410 034.  
alegialdea@ataria.eus  
**Kirolak:** 673 06 1132. kirolak@ataria.eus  
**Bezera arreta zerbitzua:** **943 30 43 46**



www.ataria.eus

**ATARIA IRRATIA**  
**107.6 FM**

**Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:**  
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

**Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:**



# ASTEAZKENA 09

## AGENDA

### Deialdiak

**Anoeta.** Anitz dantza taldearen ikuskizuna, HH3ko ikasleekin, 17:45ean, Mikelasagasti auditorioan  
**Berrobi.** Ibin Kirol Klubak antolatuta, ping pong eta dardo txapelketa, gaztegunean, 17:30ean.

### Erakusketak

**Berrobi.** Argazki lehiaketako argazkien erakusketa, liburutegian.  
**Tolosa.** Munduari lehotxo bat, Ana Amigoren eskutik, Aranburu jauregian.  
**Tolosa.** Lierni Mendiaren Boligrafoz erakusketa Aranburun.  
**Tolosa.** Blok arte eskolako ikasleek egindako lanen aukeraketa, Topic-eko Anbiguan.  
**Tolosa.** Zeru argazki erakusketa, kultur etxeko pasadizoko beiratean.

## 28 KANALA

**08:00.** 1, 2, 3 hemen da Miru!  
**11:00.** Musika zuzenean (Ibil bedi eta Oihan Agirretxe)  
**11:30.** Gaurkoan Tolosaldeko  
**17:30.** Gaurkoan Tolosaldeko  
**22:00.** Bi urte, bi hitzetan (Igor Zapirain)

## ATARIA IRRATIA

**09:00. Pasahitza.** Magazina Asier Imazek gidatuta: Iker Ibarluzearekin eguraldi iragarpena, eskualdeko berriak, kolaboratzaileen tartearak...  
**15:00. Desafioa.** Herri kirolak Joxe Angel Sarasolarekin.  
**16:00. Zebrabidea.** Arroza sareko

irratien artean eginiko arratsaldeko magazina.  
**20:00. (H)ari naizela.** Bertsolaritza, Imanol Artola Felix-ekin.

## FARMAZIAK

### Gaur

**TOLOSA. Egunekoa.** Jesus M. Etxe-beste Elozegi. Gernikako Arbolaren Lorategiak, 3. 943 65 10 40.

**TOLOSA. Gauekoa.** Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

## EGURALDIA

### IKER IBARLUZEA

**Gaur.** Giro ederrak jarraipena izango du. Goizean behe-hodei batzuk ikusiko dira, baina eguerdirako garbitu eta arratsaldean eguraldi eguzkitsua nagusituko da. Haizeak ipar-mendebaldetik joko du eta tenperatura biz-pahiru gradu jaitsiko da, 24-25 graduan joz goia.

**Bihar.** Eguraldi eguzkitsuak jarraipena izango du. Goizean hodeiren bat edo beste ikusiko bada ere, eguerdirako eguzkiak xurgatuko ditu eta arratsaldean eguraldi eguzkitsua eta ederra geratuko zaigu. Haizeak ipar-ekialdetik ahul joko du eta tenperaturak zertxobait egingo du gora, 25-26 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.

# Antzerki Astea prest dute Amarotzen

23. urtez antolatu du Intujai antzerki taldeak; gorputz mugimenduetan trebatzeko bi ikastaro ere antolatu dituzte

## Erredakzioa Tolosa

Antzerkiarekin urteroko hitzordua badator Amarotz auzora. Intujai antzerki taldeak antolatuta 23. urtez egingo da aurten Amaro-zko Antzerki Astea. Ekainaren 28tik uztailearen 3ra bitarte luza-tuko da, eta ohi bezala, adin guz-tietako herritarrei zuzendutako antzezlanen gozatzeko aukera izango da.

Berezitasun moduan, pintxo-poteatro egingo dute uztailearen leian, hiru ikuskizun izango dire-larik, pintxopotea egiten den bi-tartean ikusteko.

## BITAILER UZTAILEAN

Bestalde, Intujai taldeak bi ikas-taro antolatu ditu uztaileako Amaro-z auzoan. Batetik, iaz har-rera ona izan zuenez, aurten ere hip hop tailerra errepikatuko dute. Bestetik, parkour edo des-plazamenduaren artea izango da aukeran. Intujai taldeko May Go-rostiagak esan duenez, «helbu-rua kultura kalera ateratzea, eta betiko lekuetatik at egitea da». Halaber, gorputz mugimendue-tan trebatzeaz gain, alor pedago-gikoa ere lantzen dutela gehitu du. Ikastaroak uztailearen 13tik 29ra izango dira, 6 eta 14 urte bi-tarteko gazteei zuzendutakoak dira, eta 678 990 162 zenbakira deitu behar da izena emateko.



Pasa den urteko Amaro-zko Antzerki Asteako emanaldietako bat. JOSU ARTUTXA

## EGITARAUA

### Ekainak 28, astelehena

**17:00.** Pallaztana Junior taldearen: *Kluedo 2*.  
**19:00.** Doro Zobaran: *Uhuri gautxo-riaren uluak*.

### Ekainak 29, asteartea

**18:00, 19:00.** Pallaztana Klown Tal-dea: *Aleluya*.

### Ekainak 30, asteazkena

**17:00.** Ester Poveda: *Esterren mun-dua*.  
**19:00.** Bea Larrañaga: *Bonba bat naiz*.

### Uztailak 1, osteguna

**Pintxopoteatro**  
**16:00, 17:00, 18:00, 19:00.** Tefi de Paz: *Remigia Etxarren, La reina del Arga*.  
**18:00-20:00.** Diego Calavia eta Imanol Ituiño: *Gertuko magia*.  
**20:00.** Andoni Ollokiegi: *Tony Roc-ket*.

### Uztailak 2, ostirala

**18:00.** Cirk About It: *Por las ramas*.

### Uztailak 3, larunbata

**18:00.** Zirkozaurre: *Kobre*.

# ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95  
ataria@ataria.eus  
San Esteban 20  
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,  
ezkontzak, jaioberririk...

www.ataria.eus · 107.6 fm ·

## zozketak

### Atarikideentzat bi sarrera ditugu

**Iparragirre 200 urte, Urretxutik mundura**  
(Gorka Hermosa, Blanchard Strings, Marina Pardo eta Hodeiertz abesbatza)

Ekainak 11, 19:00etan, Leidorren

Zozketetan parte hartzeko **Osteguna 11:00ak** arte: **943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**